

***TXOSTENA: NAFARROAKO FORU
KOMUNITATEKO
ADMINISTRAZIOAREN 2023.
URTEKO ARAUGINTZA PLANA
GAUZATZEAREN EBALUAZIOA.***

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	2. or.
I. EBALUAZIOA: SARRERA	4. or.
1. <i>Urteko araugintzaren plangintza</i>	<i>4. or.</i>
2. <i>2023ko Araugintza Plana.....</i>	<i>4. or.</i>
3. <i>Ebaluazioari buruzko txostena</i>	<i>5. or.</i>
II. 2023KO ARAUGINTZA PLANA GAUZATZEA	11. or.
1. <i>Abiapuntua.....</i>	<i>11. or.</i>
2. <i>Orokorrean.....</i>	<i>20. or.</i>
3. <i>Zehaztuta... ..</i>	<i>29. or.</i>
01. LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUNA	30. OR.
02. MEMORIA ETA BIZIKIDETZA, KANPO EKINTZA ETA EUSKARA.....	33. OR.
03. ETXEBIZITZA, GAZTERIA ETA MIGRAZIO POLITIKAK.....	34. OR.
04. EKONOMIA ETA OGASUNA.....	36. OR.
05. HEZKUNTZA.....	41. OR.
06. OSASUNA.....	45. OR.
07. LURRALDE KOHESIOA	46. OR.
08. INDUSTRIA ETA ENPRESEN TRANTSIZIO EKOLOGIKO ETA DIGITALA ..	48. OR.
09. ESKUBIDE SOZIALAK, EKONOMIA SOZIALA ET ENPLEGUA	49. OR.
10. UNIBERTSITATEA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	50. OR.
11. BARNEA, FUNTZIO PUBLIKOA ETA JUSTIZIA.....	51. OR.
12. LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA	54. OR.
13. KULTURA, KIROLA ETA TURISMOA.....	57. OR.


III. ONDORIOAK	61. or.
1. Lehenengoa	61. or.
2. Bigarrena.....	66. or.
3. Hirugarrena.....	68. or.

I. EBALUAZIOA: SARRERA

1. Urteko araugintzaren plangintza.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Urteko Araugintza Plana plangintza orokorreko tresna da; haren bidez, hurrengo urtean zehar onetsi nahi diren arau nagusiak proposatzen dira. Urteko Araugintza Plana onetsi ondoren argitaratu egiten da, herritarrek aldez aurretik eskura eduki dezaten legegintzako ekitaldian onetsi nahi diren arauen berri ematen duen dokumentu informatiboa.

Horrez gainera, onesteko dauden arau batzuk ere agertzen dira Araugintza Planean, unitateek eta organoek kronologikoki programatu behar baitituzte haiek izapidetzeko lanak, Planaren aldian gauzatzeko. Kopuruari erreparatuta, hona hemen planetan jasotako arauen kopuruaren bilakaera:



Azkenik, Urteko Araugintza Planean jasota dago beraren betetze-mailaren ebaluazioa eginen dela gero. Horrela Administrazioak gardentasunaren printzipioa eta kontu eman beharra betetzen ditu, ebaluazioaren bidez herritarrek jakin baitezakete Administrazioak bere aurreikuspenak bete dituenek. Gainera, ebaluazio horretan oinarrituta legegintza bideratzeko erabakiak hartzen ahal ditu.

2. 2023ko Araugintza Plana.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 132. artikuluan ezartzen duenez, administrazio publiko bakoitzak Araugintza Plana egin behar du urtero; bertan hurrengo urtean onesteko asmoa daukan legeen edo arauen ekimenak azaldu behar dira. Onetsitakoan, Urteko Araugintza Plana argitaratu egiten da, dagokion administrazio publikoaren gardentasunaren atarian.

Foru Komunitatearen esparruan, martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoak, 129. artikuluan ezartzen duenaren arabera, erregelamendu ahala eta legegintza ekimena gauzatuta, Gobernuak arauen kalitatearen eta erregulazio onaren printzipioen arabera jokatu du. Printzipio horietako bat segurtasun juridikoa da. Hori aintzat harturik, eta ordenamendu juridikoa aurreikusteko modukoa izatea bermatu nahian, arauak *ex ante* araugintza-plangintza hobetzea sustatzen du.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak ere gai horri ekiten dio. Izan ere, 21.2.c) artikulua xedatzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak garrantzi juridikoko zenbait informazio argitaratu behar ditu, tartean Urteko Araugintza Plana, Gobernuak onesteko aurkeztuko dituen lege edo erregelamendu mailako proposamen guztiak jasoko omen dituen.

Ilido beretik, martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak 128. artikuluan xedatzen du Nafarroako Gobernuak araugintza plan bat onetsiko duela urtero, hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren lege edo erregelamendu ekimenak jasoko dituen. Gainera, onetsi ondoren, Urteko Araugintza Plana Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da. Azkenik, ezartzen du Araugintza Planaren indarraldia amaitutakoan azalpen publikoa emanen dela haren betetze mailari buruz. Horrenbestez, betetze-mailari buruzko txostena ere Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu beharko da, herritarrek jakin dezaten zer egin duen Nafarroako Gobernuak araugintzaren esparruan.

Aurreko guztiarekin bat etorritik, 2022ko abenduaren 28an Nafarroako Gobernuak erabaki zuen onestea 2023rako Urteko Araugintza Plana (hemendik aurrera 2023ko UAPa edo Plana), erabakiaren eranskinean osorik azaltzen dena. Haren egitura bat dator departamentuen mailako egitura organikoarekin, eta bertan departamentu bakoitzak Planaren indarraldian onetsi nahi dituen lege edo erregelamendu ekimenei buruz emandako informazioa biltzen da. Gainera, erabaki hori eta eranskina Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratzeko agintzen da. Nolanahi ere, honako web orri honetan eskuratzen ahal dira bi dokumentu horiek, bai eta lehenagoko planei dagozkienak ere:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gardentasuna/urteko-araudia-plana>

3. Ebaluazioari buruzko txostena.

Nafarroako Gobernuaren 2022ko abenduaren 28ko erabakiaren azalpen-zatian honako agindu hau ezartzen da 2023ko Araugintza Planaren ebaluazioari buruz, martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak 128. artikuluan xedatzen

duenarekin bat etorritz: departamentu bakoitzak dokumentu batean azaldu behar du nolakoa izan den Planaren betetze-maila bere esparru guztietan, eta zehaztu behar du Planean ezarritako arauetatik zein onetsi diren eta zein ez; onetsi ez direnak zergatik ez diren onetsi azaldu behar da. Halaber, dokumentazio hori aztertuta, departamentuen arteko koordinazio juridikoaren eta administratiboaren gaineko eskumena daukan zerbitzuak ebaluazioari buruzko txosten bat eginen du, Planaren aldia amaitzen denetik hiru hilabete pasatu baino lehen; ondoren Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da txosten hori.

Azaroaren 15eko 238/2023 Foru Dekretuak, Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duenak, 18 m) eta 21 d) artikuluetan esleitzen dion esparru materiala eta funtzionala gauzatzeko, ebaluazio-txosten hori egiteko eskumena Lehendakaritzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiko Gobernuaren Idazkaritzako, Erakundeekiko Harremanetako eta Araugintzako Zerbitzuari dagokio, Koordinazio Atalaren bidez.

beraz, Nafarroako Gobernuaren 2022ko abenduaren 28ko Erabakiaren azalpen-zatiarekin bat etorritz, eta ebaluazio-txostena egiteko behar den informazio guztia biltzeko, Koordinazio Atalak Nafarroako Gobernuko idazkaritza tekniko nagusi guztiei eskatu zien baliabide telematikoen bidez bidaltzeko 2023ko UAParen betetze-mailaren berri ematen duen dokumentua, honako hauek xehatuta:

- Planean aurreikusitako arauetatik 2023. urtean onetsi direnak.
- Planean aurreikusitako arauetatik onetsi EZ direnak (egonez gero). Halakorik egon bada, zergatik ez den onetsi azaldu behar da.
- Planaren eranskinean ez agertu arren onetsi diren arauak.

Eskatutako dokumentazio guztia jaso ondoren, ebaluazio-txosten hau egin zen 2023ko UAParen betetze-mailari buruz. Printzipioz, txosten honen xedea da azaltzea zenbateraino gauzatu den legegintzaren plangintzan ezarritakoa, onetsi zenaren arabera.

Aipatu behar da honako hau Foru Administrazio Publikoak martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 128. artikulua betetzeko egin duen araugintzaren ebaluazioari buruzko laugarren txostena dela. Aurreko urteetako araugintza planak urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132. artikularen itzalpean baino ez ziren egin eta ez zen egin haien ebaluazioari buruzko txostenik, lege horrek ez baitzuen halakorik arautzen. Eskema berria askoz egokiagoa da, ezartzen baitu arauak plangintza baten ondoren onetsi behar direla eta, gero, helburuak lortu diren ala ez ebaluatu behar dela eta emaitzen berri eman behar dela urteko

ebaluazio-txostenaren bitartez. Ikuspegi kronologikoa aplikatuta, arau baten plangintza haren izapideen eta onespeneren prozeduraren aurretik egiten da, eta ebaluazioa zikloaren amaieran egiten da, hau da, haren aplikazioa eraginkorra izan dela ebaluatzeko eta helburuen betetze-maila aztertzeko bitartekoa da. Ebaluazioa tresna bat da informazio publikoa herritarren eskura jartzeko. Eskema honetan, ebaluazioa osatzeko ezinbestekoa da txostenean kontuan edukitzea Planean aurreikusita ez egon arren onetsi diren legegintzako produktuak; izan ere, aurrerago zehaztuko den bezala, horrela hobeki neurtzen eta baloratzen ahal da beste faktore batzuen ondoriozko eskakizunek zenbateraino behartu eta baldintzatu dituzten Nafarroako Gobernuaren araugintzako lehentasunak.

Azaldu den bezala, ikuspegi materialetik, ebaluazio-txosten honetan aztertzen da nola aplikatu den 2023ko UAPa. Hain zuzen ere, batetik aztertzen da plan horretan ezarritako proposamenen gauzatze-maila (eta, beraz, zenbat geratu den bete gabe), hau da, Planean ezarritako legegintzako ekimenetatik zenbat onetsi diren Planaren aldian (2023ko abenduaren 31ra arte) eta nolakoa den haiei buruzko balorazioa, eta, bestetik, Planean aurreikusi gabeko zenbat ekimen onetsi diren 2023an eta zein den haiei buruzko balorazioa. Beraz, txosten honen esparrutik kanpo daude 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen eta urte bereko abenduaren 31az gero onetsitako proposamen guztiak. Hala ere, haien tramitazio egoeraren berri ematen da¹.

Egiturari dagokionez, txosten honetan hautatu da datuak departamentuka xehatzea, aurreko ebaluazio-txostenetan egin den bezala (bai 2023ko martxoaren 28koan, bai 2022ko martxoaren 25ekoan), uste baita horrela ebaluazioaren edukiaren ikuspegi bateratuagoa eta homogeenagoa lortzen dela, ebaluatutakoarekiko zuzeneko erlazioarekin egiten da eta. Gogoan eduki behar da txosten honen helburua ez dela ebazpenik ematea araugintzaren kalitateaz, ez abagune politikoari dagozkion gaiez jardutea, baizik eta ebaluatzea zenbateraino bete diren hura arautzen duen Gobernuaren erabakiaren eranskinean ezarritako aurreikuspenak, betiere kontuan hartuta 2023ko ekitaldian onetsi nahi izan diren lege eta erregelamendu ekimenei buruz departamentuek emandako informazioa biltzen dela bertan eta, halaber, betetze-mailaren analisirako ere departamentuek emandako informazioa erabili dela.

2020ko eta 2021eko ekitaldietan ez bezala, oraino ez dago bereiz nabarmendu beharrik COVID-19ak ekarritako osasun larrialdiko egoerak nolako eragina izan duen legegintzako aurreikuspenen gauzatze-mailan. Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialek eragindako ezohiko legegintzak ere ez

¹ Idazkaritza tekniko nagusiek 2023ko otsailaren 14ra arte emandako datuak erabili.

du garrantzi handirik izan. Aldiz, kontuan eduki behar da 2023an Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak egin direla; izan ere, gertaera hori oso garrantzitsua izan da, erabateko eragina eduki baitu Planean aurreikusitako helburuetan.

Hain zuzen ere, 2023ko abuztuaren 15ean XI. legegintzaldia hasi zen eta ondorioz Planeko helburuak aldatu dira honako hiru arrazoi hauengatik:


- batetik, 2023ko maiatzaren 28an amaitu zen hauteskunde-prozesua, zeren eta horren deialdiak berak legegintzako izapideak gelditu baitzituen, bai Parlamentukoak (desegin zen), bai administrazio-izapideak, guri dagokigunez, batik bat erabaki zelako ez zela bidezkoa horiekin aurrera egitea, hauteskundeen ondoriozko gobernu berriaren jarduna ez eragozteko ez baldintzatzeko. Horrek azaltzen du, hein batean, zergatik izan diren % 42 gutxiago 2023ko UAPeko arauak 2022koak baino: 2022koan 110, 2023koan 64 baino ez. Izan ere, horregatik ez zen egin 2018ko amaieran 2019ko Araugintza Plana, uste izan baitzen maiatzaren 26an egin ziren Nafarroako Parlamenturako hauteskundeek ez zutela aukerarik ematen araugintzaren inguruko aurreikuspenik egiteko, ez zegoelako modurik jakiteko helburuak beteko zirenez.
- bestetik, Gobernua jardunean egon da eta horrek legegintza-ekimena murrizten du.
- hirugarrenik, kontuan eduki behar dira hauteskundeen ondoko inbestiduraren esparrua eta horretarako akordio programatikoa (horren printzipioak, lehentasunak eta konpromisoak ez ditugu txosten honetan aipatuko), zeren eta, horien arabera, helburuak ez baitira izanen aurreko legegintzaldiko plana eratzeko aintzat hartu zirenak; gainera, kargu-uzteak eta izendapenak gauzatzeko arauak eman behar izan dira, horien ondorioz aldaketak egin behar izan dira departamentuen egituretan eta eskumenak esleitu behar izan zaizkie arduradun berriei, eta horren eraginez aldaketak egin behar izan dira araugintzako espedienteak egiteko ardura daukaten langileen eta unitateen artean.

Planean jasotako araugintzako aurreikuspenak baino harago, eta, hortaz, haren gauzapena aztertu baino lehen, 2023ko legegintzako ekitaldiko jarduketa orokorreari buruzko informazioa eman behar da.

FL	23	Aldarrikatutako foru legeak
FLD	1	Foru lege-dekretuak

LFD	4	Legegintzako foru dekretuak
FD	311	Foru dekretuak
FA	25	Erregelamendu-mailako foru aginduak
LeFD	44	Lehendakariaren foru dekretuak


Gobernu berriaren eraketaren ondorioz gertatu den aldaketa handia ongi erakutsi nahian, ondoko irudian erraz antzematen ahal da gehikuntza handia izan dela foru dekretuetan (FD edo LeFD), Foru Komunitateko Administrazioaren egitura berria onetsi behar izan delako. Izan ere, kontseilarien kargu-uzteak eta izendapenak onetsi behar izan dira, eta kabineteko langileenak eta unitate txikiagoetako titularrenak ere bai; horiek guztiak araugintzakoak izan ez badira ere, eragin dituzten jarduketek ohiko araugintza moteldu dute eta ezin izan da aurreikusitako guztia. Halaber, foru lege (LF) gutxiago onetsi dira; izan ere, hauteskunde-urtea izanik, Nafarroako Parlamentua desegina egon da apiriletik ekainera bitartean, eta urriaren 26ko osoko bilkurara arte ez da foru legerik onetsi:



Txosten honi dagokionez, Foru Administrazio Publikoaren legegintzako eta erregelamenduzko jardunak (beraz, Foru Dekretu ez-arauemaileak eta Foru Lege proposamenak alde batera utzita) honako datu hauek ematen ditu:

FL	9
FLD	1
FD	47
FA	30
LFD	4

Hauxe da grafiko erradiala:



II. 2023KO ARAUGINTZA PLANA GAUZATZEA

1. Abiapuntua.

2023ko Araugintza Plana lehen aipatu den Nafarroako Gobernuaren 2022ko abenduaren 28ko erabakian txertatu zen eranskin gisa. Hona:

2023KO ARAUGINTZA PLANA²

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua

Foru dekretua	Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan sartu eta bertako lanpostuak betetzeko deialdietako merezimenduen balorazioa arautzen duena.
Foru dekretua	langileen arloko erregelamendu-arau batzuk aldatzen dituena.
Foru dekretua	zeinaren bidez aldatzen baita otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duena.
Foru dekretua	Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan zerbitzuak telelan bidez ematea arautzen duena.
Foru dekretua	zeinaren bidez aldatzen baita maiatzaren 23ko 38/2018 Foru Dekretua, Nafarroako Urrezko Domina ematea arautzen duena.
Foru dekretua	zeinaren bidez indargabetzen baita martxoaren 30eko 26/2009 Foru Dekretua, "José Lázaro Galdiano" ediziorako saria sortzen duena.

² Letra lodiz ageri dira Plana jarraikiz 2023an onetsitako arauak.

Foru dekretua	zeinaren bidez aldatzen baita maiatzaren 30eko 43/2018 Foru Dekretua, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko suhiltzaile edo suhiltzaile kabo lanpostuak betetzen dituzten langileendako bigarren jarduerako egoera arautzen duena.
Foru dekretua	zeinaren bidez aldatzen baita martxoaren 6ko 18/2019 Foru Dekretua, 112 SOS Nafarroa Larrialdiak Kudeatzeko Zentroa arautzen duena.
Foru dekretua	zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren antolamendua, funtzionamendua eta barne araubidea.
Foru dekretua	Nafarroako Foruzaingoaren lanaldi eta ordainsarien erregelamendua onesten duena.
Foru dekretua	zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako poliziek bideokamerak erabiltzeko baldintzak, grabazioen zaintza eta grabazioak eskuratzeko bidea.
Foru dekretua	zeinaren bidez aldatzen baita martxoaren 25eko 57/2002 Foru Dekretua, Nafarroako Foruzaingoko lanpostuak betetzeko erregelamendua onesten duena.
Foru dekretua	zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 17ko 25/2013 Foru Dekretua, Nafarroako Foruzaingoko kideek zerbitzuaren arrazoiak direla-eta arropa erabili eta erosteagatik kalte-ordaina jasotzeko baldintzak eta beste neurri batzuk arautzen dituena.
Foru dekretua	Nafarroako Joko eta Apustuen Erregelamendu Orokorra onesten duena.
Foru dekretua	Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Berdintasun Unitateen eginkizunak eta haien koordinazio egiturak arautzen dituena.
Foru dekretua	Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 22. artikuluan

	aurreikusten diren genero-inpaktuaren txostenen edukia eta prestatzeko prozedura arautzen dituena.
Foru dekretua	Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta Nafarroako toki erakundeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan koordinatzeko batzordea sortzen duena eta horren funtzioak, osaera eta funtzionamendu araubidea arautzen dituena.
Foru dekretua	Nafarroako Landa Eremuko Emakumeen Estatutua onesten duena.
Foru dekretua	LGTBI+ pertsonen arreta emateko zerbitzua arautzen duena.
Foru dekretua	Nafarroako Gazteriaren Kontseilua arautzen duena.
Foru dekretua	ekainaren 21eko 235/1999 Foru Dekretua aldatzen duena; foru dekretu horren bidez arautu ziren haur eta gazteen astialdirako eskolen onarpen ofiziala, eskola horien eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren arteko harremanak eta haur eta gazteen astialdirako hezitzaileen prestakuntza.
Foru dekretua	Nafarroako Foru Komunitateko Gazte Sariak arautzen dituena.
Foru dekretua	Nafarroako Foru Komunitatean aire zabalean egiten diren gazteendako jarduerak arautzen dituena.
Foru dekretua	Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea garatzen duena.
Foru dekretua	Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseiluaren osaera, antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituena.
Foru dekretua	Nafarroako boluntarioaren saria arautzen duena.

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Foru dekretua	zeinaren bidez aldatzen baita 84/1990 FORU DEKRETUA, apirilaren 5koa, Nafarroan industrialdeak eta industria jarduerak ezartzeko arauak onesten dituena.
Foru dekretua	Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak arautzen dituena.
Foru dekretua	etxebizitzak zaharberritzeko udal eta eskualdeetako bulegoen eginkizunak eta horien finantzatzeko laguntzak emateko modua arautzen dituena.

Lurralde Kohesiorako Departamentua

Foru dekretua	Nafarroako toki erakundeetan barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena.
Foru dekretua	Nafarroako toki entitateek ematen dituzten zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko irizpideak arautzen dituena.

Ekonomia eta Ogasun Departamentua

Foru dekretua	zeinaren bidez oneste baitira enpresaburuen eta profesionalen fakturazio-prozesuetako sistema informatikoen edo elektronikoen bete beharreko baldintzak eta fakturazio-erregistroen formatuen estandarizazioa.
Foru dekretua	zeinaren bidez aldatzen baita 8/2010 Foru Dekretua, identifikazio fiskaleko zenbakia eta horri lotutako errolda zehatz batzuk arautzen dituena.

Foru dekretua	zeinaren bidez aldatzen baita 74/2019 Foru Dekretua, ekainaren 26koa, Kontratazio Publikorako Batzordea arautzen duena.
Foru dekretua	datu estatistikoak lagatzeko erregelamendua onesten duena.
Foru agindua	honako foru agindu hauek aldatzen dituena. 971/2012 Foru Agindua, azaroaren 15ekoa, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baitira 150 eredia (“Espainiako lurraldera lekualdatutako langileentzako araubide bereziari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpena”) eta 149 eredia (“Espainiako lurraldera lekualdatutako langileentzako araubide berezia aplikatzeko komunikazioa”); 225/2011 Foru Agindua, abenduaren 27koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, baldintzak eta prozedura ezartzen dituena hainbat subjektu pasibok aukera izan dezaten, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasibo gisa, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordaintzeko.
Foru agindua	zorrak transferentzia bidez ordaintzeko prozedura eta baldintzak arautzen dituena.
Foru agindua	zeinaren bidez aldatzen baita Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren apirilaren 23ko 80/2008 Foru Agindua, hein batean garatzen duena Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamendua, zergen aitorpen-likidazio edo autolikidazio batzuei dagozkien ordainketak bankuan helbideratzeari dagokionez.

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua

Foru dekretua	bitartekotza turistikoa arautzen duena.
---------------	---

Foru dekretua	turismo ibiltaria arautzen duena.
Foru dekretua	zeinaren bidez garatzen baita 18/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, enpresen sustraitzearen aldeko eta deslokalizazioaren aurkako neurriei buruzkoa.
Foru dekretua	zeinaren bidez arautzen baita nola ezarri behar diren instalazio eolikoak eta fotovoltaiakoak, Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 31.1 eta 33.1 artikulua garatzeko.

Hezkuntza Departamentua

Foru dekretua	zeinaren bidez aldatzen baita 37/2014 Foru Dekretua, apirilaren 30ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornikuntza arautzen duena.
Foru dekretua	Nafarroako hezkuntza sisteman hizkuntzak ikasteko programak arautzekoa.
Foru dekretua	Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko ikastetxe publikoen antolaketa arautzen duena.
Foru dekretua	Nafarroako Foru Komunitatean irakasleen lanaldia eta ordutegia arautzekoa.
Foru dekretua	Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioen funtzionamenduak sortzen dituen diru-sarrerera eta gastuen araubidea ezartzen duena.
Foru dekretua	Nafarroako Foru Komunitatean Lanbide Heziketako ikastetxe integratuen erregelamendu organikoa ezartzen duena.
Foru dekretua	hezkuntza sistemako irakasleak izendatzeko prozedura arautzen duena, Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxe

	publikoen sarean enplegurako lanbide prestakuntza egiaztagarria emateko, bai eta prestakuntza hori emateagatik jasoko dituzten konpentsazio ekonomikoak ere.
--	--

Eskubide Sozialetako Departamentua

Foru dekretua	honako hauek aldatzen dituena. 92/2020 Foru Dekretua, abenduaren 2koa, arautzen dituena, batetik, Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen sistemaren barruan, egoitza zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu anbulatorioen funtzionamendua adinekoen, desgaitasuna dutenen, eritasun mentala dutenen eta gizarte inklusioaren arloetan, eta bestetik, baimenen, aurretiazko komunikazioen eta homologazioen araubidea; eta 69/2008 Foru Dekretua, ekainaren 17koa, gizarte zerbitzu orokorren zorroa onesten duena eta, horrekin batera, gizarte eta osasun arloko arreta integralerako zerbitzu soziosanitarioak eta migrazio politiken zerbitzuen zorroa onartzen dituena.
---------------	---

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua

Foru dekretua	Nafarroako Foru Komunitateko gaitasun digitalen ziurtagiria arautzen duena.
---------------	---

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Foru dekretua	zeinaren bidez Babes Bereziko Basa Florako Espezieen Nafarroako Zerrenda ezartzen baita eta Nafarroako Florako Espezie Mehatxatuen Katalogo berria ezartzen baita.
Foru dekretua	zeinaren bidez Babes Bereziko Basa Faunako Espezieen Nafarroako Zerrenda ezartzen baita eta Nafarroako Faunako Espezie Mehatxatuen Katalogo berria ezartzen baita.
Foru dekretua	ekitaldi publiko jasagarriari buruzkoa.
Foru dekretua	“Alduide mendia” kontserbazio bereziko eremua kudeatzeko plan berria onesten duena.
Foru dekretua	“Orbaibarreko mendiak” kontserbazio bereziko eremua kudeatzeko plan berria onesten duena.
Foru dekretua	“Uitzamako eta Basaburuko hariztiak” kontserbazio bereziko eremua kudeatzeko plan berria onesten duena.
Foru dekretua	“Peñadil, Montecillo eta Monterrey” kontserbazio bereziko eremua kudeatzeko plan berria onesten duena.
Foru dekretua	“Urbasa eta Andia” kontserbazio bereziko eremua kudeatzeko plan berria onesten duena.
Foru dekretua	Onura Publikoko Mendien Katalogoa onesten duena.
Foru dekretua	Nafarroako Hezeguneen Inbentarioa eguneratzen duena.

Kultura eta Kirol Departamentua

Foru dekretua	Nafarroako Kirolaren Erregistroari buruzkoa.
Foru dekretua	kirolaren arloko lanbideetan aritzeko aldi baterako gaikuntzen araubideari buruzkoa.
Foru agindua	Nafarroako kirol federazioen hauteskundeak arautzen dituenak.

2. Orokorrean.

Planaren arabera 2023an guztira **64** arau onesteko asmoa zegoen. Xehetasunak geroago emanen dira. Hain zuzen ere (ikusi taula):


- 0 foru lege (FL),
- 60 foru dekretu (FD)
- 4 foru agindu (FA); erregelamendua ezartzen dute.

Departamentuen arteko banaketa:

DEPARTAMENTUAK	FL Planean	FD Planean	FA Planean	Totala
Lehendakaritza, Berdintasuna, Funtzio Publikoa eta Barnea	0	26	0	26
Lurralde Antolamendua, Etxebizitza, Paisaiak eta Proiektu Estrategikoak	0	3	0	3
Lurralde Kohesioa	0	2	0	2
Ekonomia eta Ogasuna	0	4	3	7
Garapen Ekonomikoa eta Enpresariala	0	4	0	4
Migrazio Politika eta Justizia	0	0	0	0
Hezkuntza	0	7	0	7
Eskubide Sozialak	0	1	0	1
Osasuna	0	0	0	0
Herritarrekiko Harremanak	0	0	0	0
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	0	1	0	1
Landa Garapena eta Ingurumena	0	10	0	10
Kultura eta Kirola	0	2	1	3
TOTAL	0	60	4	64

Esan den bezala, foru legerik batere ez onesteko arrazoi nagusia izan da legegintzaldia aldatu dela. Horregatik, 2024ko Araugintza Planean³ foru lege asko ageri dira (19 guztira).

Magnitude erlatiboen araberako banaketa:



³ Nafarroako Gobernuaren 2023ko abenduaren 13ko erabaki baten bidez onetsia.

Guztira, 2023ko abenduaren 31rako 64 arau horietatik **18** zeuden onetsita:

- **0** foru lege,
- **16** foru dekretu, eta
- **2** foru agindu⁴.

DEPARTAMENTUAK	LF onetsiak	LF onetsi ez direnak	FD onetsiak	FD onetsi ez direnak	AF onetsiak	AF onetsi ez direnak	Totala
Lehendakaritza, Berdintasuna, Funtzio Publikoa eta Barnea	0	0	8	18	0	0	26
Lurralde Antolamendua, Etxebizitza, Paisaiak eta Proiektu Estrategikoak	0	0	0	3	0	0	3
Lurralde Kohesioa	0	0	0	2	0	0	2
Ekonomia eta Ogasuna	0	0	1	3	2	1	7
Garapen Ekonomikoa eta Enpresariala	0	0	0	4	0	0	4
Migrazio Politika eta Justizia	0	0	0	0	0	0	0
Hezkuntza	0	0	4	3	0	0	7
Eskubide Sozialak	0	0	1	0	0	0	1
Osasuna	0	0	0	0	0	0	0
Herritarrekiko Harremanak	0	0	0	0	0	0	0
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	0	0	0	1	0	0	1
Landa Garapena eta Ingurumena	0	0	2	8	0	0	10
Kultura eta Kirola	0	0	0	2	0	1	3
TOTAL	0	0	16	44	2	2	64
			60		4		64


⁴ Ebaluazio-txostenetan aplikatu ohi diren irizpideen arabera, eta egon diren aldaketak gorabehera:

- Programatutako arau-mailen eta azkenik onetsitakoen arteko desadostasunak estatistikoki lehenbizikoen alde ebazten dira; hala, adibidez, arau bat foru lege gisa onetsi bada ere, foru dekretu gisa betetzat jotzen da.
- Planeko arau bat beharrezkoa ez bada, haren edukia, nolabait, onetsitako beste batek hartu duelako, onetsizat jotzen da, maila berarekin zein beste batekin.
- Planeko arau bat bi zatitan edo gehiagotan onesten bada, bat bakarrik zenbatzen da; aldiz, bereiz onetsi beharreko bi arau edo gehiago bat eginda onesten badira, denak jotzen dira onetsizat.
- Arau baten onespena betetzat jotzeko irizpidea da 2023-12-31rako behin betiko onetsita egotea; beraz, esate baterako, Nafarroako Kontseiluari irizpena eskatzea aintzat hartzeko erabakiak ez du hori betetzen; aldiz, argitaratu gabe dagoen onспен batek, bai.

Kalkulu azkarra eginda, aurreikusitakoaren % **28,13** baino ez da bete. Dena den, datua ongi ebaluatzeko saihestu egin behar da hura gainerako administrazio-jarduketetatik bereiz hartzea. Aitzitik, kontuan izan behar da aurreikusi gabeko araugintzako ahalegin orokorra ere, 2023ko Araugintza Plana onetsi zenean hainbat arrazoiengatik bertan jaso ez zena; izan ere, definizioz, aurreikuspenetatik kanpo uzten dira haztatu ezinekoak, eta ez litzateke bidezkoa haiek ebaluatzeko horiek kontuan eduki gabe. Horren ildotik, kontuan eduki behar da Planean aurreikusi gabeko **72** arau onetsi direla 2023an; hona:


- **9** foru lege edo foru lege-dekretu.
- **35** foru dekretu edo legegintzako foru dekretu, eta
- **28** foru agindu.

Horrenbestez, Planetik kanpoko arau horiek guztiak (72) Planean aurreikusita onetsi direnei (18) gehituz gero, onetsitako arauen guztirako kopurua (90) Administrazioak onetsi nahi zituenak baino (64) askoz gehiago dira (% 40,63 gehiago). Kontuan izan behar da Planaz kanpoko arau horiek prestatzeko prozesua bera seinlatu dela, neurri handian, Planean jasotako arauak ez egiteko arrazoitzat:




Egia da, goian azaldutako konparaziozko hurbilketatik harago, arau bakoitzak bere ezaugarriak dauzkala konplexutasunean eta zabaltasunean, eta kopuruaren azterketa soila ezin dela estrapolatu. Pentsa daiteke, hala ere, azterketa horren emaitza (% 140,63) 2023ko Araugintza Planaren betetze-mailarekin lotu behar dela, ez adierazteko % 28,13 apal horren bitartez, inolako ñabardurarik egin

gabe. 2023ko Araugintza Planetik kanpo onetsitako arauak kontuan hartzen badira, nabarmen murrizten da onetsi gabekoen ehunekoa (hasieran -% 71,87), eta zeinua aldatzen da, hurrengo grafikoan ageri den bezala:




Ondoko grafikoetan Planean ezarritako aurreproiektu eta proiektuetatik zenbat bete diren azaltzen da, arauaren mailaren arabera xehatuta:

- Foru legeak ezin dira aztertu, Planean ez baiago batere. Planean foru legerik ez egoteko arrazoiak **I. 1.3** zehaztu dira.
- Foru dekretuei dagokienez, betetze-ehunekoa (% 27) 2022koaren eta 2021ekoaren antzekoa da (% 29 eta % 23, hurrenez hurren).



- Foru aginduetan, betetze-ehunekoa 2022koa da (% 50). Hala ere, planetan foru aginduaren formarekin jasotako xedapenen kopurua hain da txikia (4), ezen ez baitu benetako eraginik emaitzetan, orokorrean hartuta.



Jarraian, 2023ko Araugintza Planeko aurreikuspenen betetze-maila zehaztuko dugu. Aurrean aipatu den bezala, ebaluazioa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren egitura funtzionaleko departamentuen arabera egin da, Planean ezartzen den egiturari jarraikiz. Departamentu bakoitzean⁵,

Legegintzaldi berri bakoitzaren hasieran departamentuen egituretan egiten den aldaketaren eraginez⁶, Planaren arabera departamentu batzuek zeukaten legegintza-ardura beste departamentu batzuetara aldatu dira zenbait arlotan: justizia, migrazio-politikak, funtzio publikoa, barnea, etxebizitza, gazteria, lurralde-antolamendua, turismoa eta estatistika publikoak. Aldaketa horien ondorioz beste modu batera banatu behar da araugintza departamentuen artean, emaitzak bat etor daitezten txosten hau egin denean indarrean egon den departamentuen egiturako idazkaritza tekniko nagusiek emandako informazioarekin, dagoeneko ez daude eta Plana onetsi zenean indarrean egon

⁵ Arau honetan ezarritako lehentasun-ordena hartu da aintzat: 22/2019 Foru Dekretua, abuztuaren 6koa, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura ezartzen duena; bigarren xedapen gehigarria.

⁶ Egungo departamentu-egitura eta departamentuen eskumenen banaketa arau honetan ezartzen dira: 10/2023 Foru Dekretua, abuztuaren 17koa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariarena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura ezartzen duena. Horren bigarren xedapen gehigarrian lehentasun-hurrenkera finkatzen da.

zen egiturako idazkaritza tekniko nagusiak. Hori kontuan edukita, Planean ezarritako arauak egungo departamentuen artean banatzen ahalko lirateke beren eskumenen arabera; horrela, balio-taula hau sortu dugu:

2023KO PLANA, EGUNGO SAILEN EGITURAREN ARABERA BIRFORMULATUA			
Departamentuak	FL-2023	FD-2023	FA-2023
Lehendakaritza eta Berdintasuna	0	11	0
Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskara	0	0	0
Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politika	0	6	0
Ekonomia eta Ogasuna	0	3	3
Hezkuntza	0	7	0
Osasuna	0	0	0
Lurralde Kohesioa	0	3	0
Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitala	0	2	0
Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegua	0	1	0
Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitala	0	1	0
Barneko, Funtzio Publikoko eta Justizia	0	12	0
Landa Garapena eta Ingurumena	0	10	0
Kultura, Kirol eta Turismoa	0	4	1
TOTAL	0	60	4

Aurreko formulazioa egin da eta datuen tratamendua hiru ataletan zatitu da:

- 1. 2023ko Araugintza Planean departamenturako aurreikusitako arauak; urtean benetan onetsitakoak zehazten dira.
- 2. Gainerako arauak ez onesteko arrazoiak.
- 3. Planean aurreikusita ez egon arren, 2023an onetsi diren arauak.

Lehenbizi, Plana onetsi zenean zeuden departamentuen arabera datuak azaltzen dira:



Ondoren, datu berak ageri dira, baina egungo egituraren arabera antolatuta, Planetik kanpo onetsitako arauak gehituta:

Araugintza, departamentuka xehatuta (egungo egitura organikoaren arabera)



Unitateek 2023-12-31ra arte kontrolatzen ahal zituzten proiektuei eta aurreproiektuei buruzko informazioa baizik ezin dute eman. Horrenbestez, eta kontuan edukita ezen, lehen esan bezala, egun ardura daukaten unitate organikoek emandako datuak direla, estatistiketan bigarren grafikoa sortzeko erabilitako taula hartuko da aintzat, ez lehengoa egiteko erabili dena. Beraz:

DEPARTAMENTUAK						
Lehendakaritza eta Berdintasuna	2023ko UAPTik onetsi diren arauak	2	2023ko UAPTik kanpo onetsi diren arauak	3	2023ko UAPEko arauak	11
Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskara		0		3		0
Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politika		3		5		6
Ekonomia eta Ogasuna		3		19		6
Hezkuntza		4		13		7
Osasuna		0		9		0
Lurralde Kohesioa		0		1		3
Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digital		0		2		2
Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegua		1		1		1
Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitala		0		1		1
Barneko, Funtzio Publikoko eta Justizia		3		2		12
Landa Garapena eta Ingurumena		2		11		10
Kultura, Kirol eta Turismoa		0		2		5
		18		72		64
		90				

3. Zehaztuta.

FL etiketa jarri zaie foru lege aurreproiektuei, eta FD edo FA etiketa jarri zaie foru dekretu proiektuei (LFD, legegintzako foru dekretuak direnean) edo foru agindu proiektuei; zenbakia, izena eta argitalpen ofizialaren datuak adierazten dira, eta egunkari ofizialaren esteka txertatu da:

1. LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUN DEPARTAMENTUA.

1.1. ONETSI DIREN PLANAREN BARRUKO ARAUAK:

Honako hauek dira:

	MAILA ETA EDUKIA	OHARRAK
FD	Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseiluaren osaera, antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituen.	Onespena: 31/2023 Foru Dekretua , martxoaren 22koa, Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen-NAO, 65. zk. - 2023-03-31.
FD	Nafarroako boluntarioaren saria arautzen duena.	Onespena: 279/2023 Foru Dekretua , azaroaren 28koa, Nafarroako boluntarioaren saria eta aitortza berezia arautzen dituen-NAO, 264. zk. - 2023-12-22.

1.2. PLANEKO GAINERAKO ARAUAK EZ ONESTEKO ARRAZOIAK.

Honako hauek dira:

	MAILA ETA EDUKIA	OHARRAK
FD	zeinaren bidez aldatzen baita maiatzaren 23ko 38/2018 Foru Dekretua, Nafarroako Urrezko Domina ematea arautzen duena.	Maiatzaren 23ko 38/2018 Foru Dekretua, Nafarroako Urrezko Domina ematea arautzen duena, aldatzen duen foru dekretua eguneratu behar denez aztertu da, eta erabaki da ez dagoela aldatu beharrik. Horregatik, azkenean 2024ko Araugintza Planean ere ez da sartu.
FD	zeinaren bidez indargabetzen baita martxoaren 30eko 26/2009 Foru Dekretua, "José Lázaro Galdiano" ediziorako saria sortzen duena.	"José Lázaro Galdiano" saria Nafarroa kanpoan sustatzeko ekintzetako bat da. Horregatik, kontuan edukita Nafarroako Gobernua Nafarroa Marka zehazten eta kokatzen ari denez, ezin finkatu izan dira Nafarroa

		Madriren sustatzeko ekintzak. Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak berresten du ez daukala asmorik sari hori ematen jarraitzeko.
FD	Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko Berdintasun Unitateen eginkizunak eta haien koordinazio egiturak arautzen dituena.	Tramitean. Tramiteak aurreratuta daude eta uste da 2024ko bigarren hiruhilekoan onetsiko dela.
FD	Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 22. artikuluan aurreikusten diren genero-inpaktuaren txostenen edukia eta prestatzeko prozedura arautzen dituena.	Tramitean. 2024ko Araugintza Planean sartu da.
FD	Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta Nafarroako toki erakundeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan koordinatzeko batzordea sortzen duena eta horren funtzioak, osaera eta funtzionamendu araubidea arautzen dituena.	Tramitean. Tramiteak aurreratuta daude eta uste da 2024ko bigarren hiruhilekoan onetsiko dela.
FD	Nafarroako Landa Eremuko Emakumeen Estatutua onesten duena.	Tramitean. 2024ko Araugintza Planean sartu da.
FD	LGTBI+ pertsonen arreta emateko zerbitzua arautzen duena.	Tramitean. 2024ko Araugintza Planean sartu da.

FD	<p>Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea garatzen duena.</p>	<p>Haurren eta nerabeen foru dekretua prestatu aurreko kontsulta publikoa hasi da. Onespena 2024ra arte atzeratu da.</p> <p>https://participa.navarra.es/processes/consulta-publica-creacion-consejo-navarro-ninos-ninas-adolescentes?locale=eu</p>
FD	<p>datu estatistikoak lagatzeko erregelamendua onesten duena.</p>	<p>Datu estatistikoak lagatzeko erregelamenduaren helburua da arautzea nola hedatu behar diren Nafarroako Estatistika Planeko eragiketa estatistikoetako banako datuak eta ustiapen bereziak, Nafarroako estatistikei Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak 9. artikuluan xedatzen duenari jarraikiz.</p> <p>Datu horien lagapena Nafarroako Gobernua garatzen ari den datuen gobernanzarako plataformaren ahal teknikoen eta kudeaketa-ahalen araberakoa izanen da. Gobernuaren arabera, plataforma horretako katalogo batean bertan bildutako informazioa eta hori eskuratzeko behar diren lagapen-akordioak azalduko dira.</p> <p>Erabaki da plataforma hori erabat garatu arte ez dela erregelamendua prestatu behar, kontuan eduki beharko baitira informazioa eskuratzeko ezaugarri teknikoak eta antolamendukoak.</p> <p>Nolanahi ere, Nastat-ek aurkezten zaizkion eskaerei erantzunen die, 11/1997 Foru Legeak ezartzen duen bezala.</p>

1.3. PLANETIK KANPO ONETSITAKO ARAUAK

Honako hauek dira:

- [216/2023 Foru Dekretua](#), urriaren 11koa, zeinaren bidez aldatzen baita 110/2005 Foru Dekretua, irailaren 5ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako Koordinazio Batzordea arautzen duena-NAO, 218. zk. - 2023-10-20.
- [217/2023 Foru Dekretua](#), urriaren 11koa, Analisi eta Prospekzio Bulegoa erakunde autonomoa sortu eta haren estatutuak onesten dituena- NAO, 218. zk. - 2023-10-20.
- [238/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena- NAO, 244. zk. - 2023-11-238/2023 Foru Dekretua..

2. MEMORIA ETA BIZIKIDETZAKO, KANPO EKINTZAKO ETA EUSKARAKO DEPARTAMENTUA.

2.1. ONETSI DIREN PLANAREN BARRUKO ARAUAK:

2023ko Araugintza Planean ez zen ezartzen inolako araugintzarik orduko Herritarrekiko Harremanetako Departamentuan (gaur egun Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua).

2.2. PLANEKO GAINERAKO ARAUAK EZ ONESTEKO ARRAZOIAK.

Ez dago ezer esateko, aurreko arrazoi berengatik.

2.3. PLANETIK KANPO ONETSITAKO ARAUAK.

2023ko Araugintza Planetik kanpo honako hauek onetsi ziren:

- Honen aurreproiektua: [3/2023 Foru Legea](#), otsailaren 22koa, kanpoko nafar herritarrekiko harremanei buruzkoa. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 49. zenbakia, 2023ko martxoaren 9koa; Estatuko Aldizkari Ofiziala, 70. zenbakia, 2023ko martxoaren 23koa.

- [239/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena- NAO, 244. zk. - 2023-11-23.

- [240/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituena- NAO, 244. zk. - 2023-11-23.

3. ETXEBIZITZAKO, GAZTERIAKO ETA MIGRAZIO POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA.

3.1. ONETSI DIREN PLANAREN BARRUKO ARAUAK:

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak hauen berri eman du:

MAILA ETA EDUKIA		OHARRAK
FD	Nafarroako Gazteriaren Kontseilua arautzen duena.	Onespena: 11/2023 Foru Dekretua , otsailaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko Gazteria Sariak arautzen dituena- NAO, 49. zk. - 2023-03-29.
FD	ekainaren 21eko 235/1999 Foru Dekretua aldatzen duena; foru dekretu horren bidez arautu ziren haur eta gazteen astialdirako eskolen onarpen ofiziala, eskola horien eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren arteko harremanak eta haur eta gazteen astialdirako hezitzaileen prestakuntza.	Onespena: 56/2023 Foru Dekretua , uztailaren 5ekoa, zeinaren bidez arautzen baita, Nafarroako Foru Komunitatean, aisialdiko hezkuntza eskolak eta horien irakaskuntzak aitortzeko bidea-NAO, 156. zk. - 2023-07-28.

FD	Nafarroako Foru Komunitateko Gazte Sariak arautzen dituenak.	Onespena: 53/2023 Foru Dekretua , ekainaren 21ekoa, Nafarroako Gazteria Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituenak-NAO, 148. zk. - 2023-07-17.
----	--	--

3.2. PLANEKO GAINERAKO ARAUAK EZ ONESTEKO ARRAZOIAK.

MAILA ETA EDUKIA		OHARRAK
FD	Nafarroako Foru Komunitatean aire zabalean egiten diren gazteendako jarduerak arautzen dituenak.	Aurreko kontsulta publikoa egin zen, baina, gaia oso konplexua denez, ez zen idatzi proiektua. Foru dekretua 2024an zehar onesteko asmoa dago.
FD	Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak arautzen dituenak.	Izapideetan eragina izan dute hauteskondeek eta gobernu berriaren eraketak.
FD	etxebizitzak zaharberritzeko udal eta eskualdeetako bulegoen eginkizunak eta horien finantzatzeko laguntzak emateko modua arautzen dituenak.	

3.3. PLANETIK KANPO ONETSITAKO ARAUAK.

Honako hauek dira:

- [13/2023 Foru Legea](#), apirilaren 5ekoa, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzekoa; 2022ko Araugintza Planean aurreikusita zegoen-NAO, 83. zk. - 2023-04-24.
- [5E/2023 Foru Agindua](#), irailaren 18koa, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Gazteriaren

Erakunde arteko Kontseilua sortzen eta arautzen duena-NAO, 217. zk. - 2023-10-19.

- [6E/2023 Foru Agindua](#), irailaren 22koa, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak emana, Nafarroako Gazteriaren Institutuak aitortutako Aisialdiko Hezkuntza Eskolen Katalogoa sortu eta arautzen duena-NAO, 215. zk. - 2023-10-17.

- [241/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena-NAO, 244. zk. - 2023-11-23.

- [242/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren estatutuak onesten dituena-NAO, 244. zk. - 2023-11-23.

4. EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA

4.1. ONETSI DIREN PLANAREN BARRUKO ARAUAK.

	MAILA ETA EDUKIA	OHARRAK
FD	zeinaren bidez aldatzen baita 8/2010 Foru Dekretua, identifikazio fiskaleko zenbakia eta horri lotutako errolda zehatz batzuk arautzen dituena.	Onespena: 234/2023 Foru Dekretua , urriaren 31koa, honako arau hauek aldatzen dituena: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamendua, maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsia; Sozietateen gaineko zergaren Erregelamendua, abenduaren 20ko 114/2017 Foru Dekretuaren bidez onetsia; Balio erantsiaren gaineko zergaren Erregelamendua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia; 8/2010 Foru Dekretua, otsailaren 22koa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta hari lotutako zenbait zentsu arautzen dituena; 50/2006 Foru Dekretua, uztailaren 17koa, baliabide

		<p>elektroniko, informatiko eta telematikoen (EIT) erabilera arautzen duena Nafarroako Foru Ogasunaren esparruan, eta 177/2001 Foru Dekretua, uztailaren 2koa, Nafarroako Foru Komunitateko Dirubilketa Erregelamendua onesten duena-NAO, 243. zk. - 23-11-23.</p>
<p>FA</p>	<p>honako foru agindu hauek aldatzen dituena: 971/2012 Foru Agindua, azaroaren 15ekoa, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baitira 150 eredia ("Espainiako lurraldera lekualdatutako langileentzako araubide bereziari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpena") eta 149 eredia ("Espainiako lurraldera lekualdatutako langileentzako araubide berezia aplikatzeko komunikazioa"); 225/2011 Foru Agindua, abenduaren 27koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, baldintzak eta prozedura ezartzen dituena hainbat subjektu pasibok aukera izan dezaten, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasibo gisa, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordaintzeko.</p>	<p>Onespena: 13/2023 Foru Agindua, otsailaren 28koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez garatzen baita lekualdatutako langileentzako araubide berezia eta onesten baitira 149 eta 150 ereduak, hurrenez hurren. "Lekualdatutako langileentzako araubide berezirako aukera, uko egitea, baztertzea eta aplikazio epearen bukaera komunikatzea" eta "Lekualdatutako langileentzako araubide bereziari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa"-NAO, 55. zk. - 2023-03-17.</p>

FA	zorrak transferentzia bidez ordaintzeko prozedura eta baldintzak arautzen dituen.	Onespena: 145/2022 Foru Agindua ⁷ , abenduaren 30ekoa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena, zorrak transferentzia bidez ordaintzeko prozedura eta baldintzak arautzen dituen-NAO, 11. zk. - 2023-01-17.
----	---	--

4.2. PLANEKO GAINERAKO ARAUAK EZ ONESTEKO ARRAZOIAK.

Hona Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi dituen arrazoiak:

	MAILA ETA EDUKIA	OHARRAK
FD	zeinaren bidez oneste baitira enpresaburuen eta profesionalen fakturazio-prozesuetako sistema informatikoen edo elektronikoen bete beharreko baldintzak eta fakturazio-erregistroen formatuen estandarizazioa.	Proiektu konplexua da: garapen informatiko egokiak behar dira eta luzeago joko du behin betiko onespenera.
FD	zeinaren bidez aldatzen baita 74/2019 Foru Dekretua, ekainaren 26koa, Kontratazio Publikorako Batzordea arautzen duena.	Onespena: 12/2024 Foru Dekretua , otsailaren 7koa, Kontratazio Publikorako Batzordea arautzen duen ekainaren 26ko 74/2019 Foru Dekretua aldatzen duena-NAO, 39. zk. - 2024-02-22. ⁸
FA	zeinaren bidez aldatzen baita Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren apirilaren 23ko 80/2008 Foru Agindua, hein	garapen informatikoak noiz amaituko, onesteko.

⁷ 2023ko Araugintza Planaren barruan onetsitaz jotzen da, 2022ko ekitaldikoa izan arren; izan ere, plan horretan ezarrita zegoen, baina ez zegoen 2022koan eta ezin sartu izan zen planetik kanpo onetsitakoen artean ere, beraren onespeneraren data 2023ko Araugintza Planaren onespeneraren ondokoa baitzen. Bestela, Planean ezarrita egonik ez, ezin jo izanen litzateke ezein planaren barruan onetsitaz.

⁸ Aldiz, arau hau ez da onetsi Planaren arabera, zeren eta, 2023an onetsi beharrekoa izan arren, 2024ko ekitaldian onetsi baita.

<p>batean garatzen duena Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamendua, zergen aitorpen-likidazio edo autolikidazio batzuei dagozkien ordainketak bankuan helbideratzeari dagokionez.</p>	
---	--

4.3. PLANETIK KANPO ONETSITAKO ARAUAK.

Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi duenez, honako zerga-xedapen hauek onetsi dira Planetik kanpo (Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako dataren araberrako hurrenkeran):

- [22/2023 Foru Legea](#), abenduaren 26koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributuenri batzuk hartzeari buruzkoa (NAO, 269. zk., 23-12-29).

- [79/2023 Foru Agindua](#), azaroaren 21ekoa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren autolikidazioko 600 eta 605 ereduak onesten dituen, kostu bidezko ondare-eskualdaketen eta sozietate-eragiketen eta egintza juridiko dokumentatuen modalitateetakoak (NAO, 261. zk., 23-12-19).

- [78/2023 Foru Agindua](#), azaroaren 16koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baitira 592 eredu, “Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia. Autolikidazioa” izenekoa, eta A22 eredu, “Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia. Itzultzeko eskaera” izenekoa, eta arautzen baitira lurralde erregistroko inskripzioa, kontabilitate-lana eta izakinen erregistro liburuaren aurkezpena (NAO, 261. zk., 23-12-19).

- [77/2023 Foru Agindua](#), azaroaren 16koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez garapen-arauak onesten baitira bidalketa bermatuen mugimenduei dagokienez, 504, 505 eta 507 ereduak onesten baitira (504 “Baimen-eskabidea, fabrikazio-zerga berezien xede diren produktuak Europar Batasuneko gainerako herrialdeetara bidaltzeko edo haietatik jasotzeko”, 505 “Baimena, fabrikazio-zerga berezien xede diren produktuak Europar Batasuneko gainerako herrialdeetara bidaltzeko edo haietatik jasotzeko” eta 507 “Itzultzeko eskabidea bidalketa bermatuen sisteman”), eta ohiko igorle eta hartzaile egiaztatuen lurralde-erregistroko izen-ematea arautzen baita (NAO, 261. zk., 23-12-19).

- [244/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, Nafarroako Foru Ogasuna erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen (NAO, 244. zk., 23-11-29).
- [243/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, zeinaren bidez ezartzen baita Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren egitura organikoa (NAO, 244. zk., 23-11-23).
- [17/2023 Foru legea](#), urriaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiteko. Zuzentaru horren bidez, aldatu egin zen 2011/16/EB Zuzentaru, fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa (NAO, 231. zk., 23-11-07).
- [47/2023 Foru Agindua](#), uztailaren 5ekoa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, finantza transakzioen gaineko zergaren autolikidazioen aurkezpena eta diru-sarrera egiteko prozedura garatzen duena eta "Finantza transakzioen gaineko zerga. Autolikidazioa" 604 eredu onesten duena (NAO, 155. zk., 23-07-27).
- [4/2023 Legegintzako Foru Dekretua](#), uztailaren 5ekoa, tributu harmonizazioari buruzkoa, zeinaren bidez luzatzen baita zenbait elikagairen gaineko balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-tasen murrizketa (NAO, 153. zk., 23-07-24).
- [3/2023 Legegintzako Foru Dekretua](#), ekainaren 21ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea eta Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen dituen (NAO, 148. zk., 23-07-17).
- [29/2023 Foru Agindua](#), ekainaren 14koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena, zeinaren bidez atzerrian dagoen diru birtualari buruz informatzeko betebeharrak garatzen baita eta 721 eredu ("Atzerrian dagoen diru birtualaren gaineko aitortzen informatiboa") onesten baita (NAO, 146. zk., 23-07-23).
- [30/2023 Foru Agindua](#), ekainaren 14koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez diru birtualaren saldoei eta diru birtualarekin egindako eragiketei buruz informatzeko betebeharrak garatzen baitira eta 172 eredu ("Diru birtualeko saldoen gaineko aitortzen informatiboa") eta 173 eredu ("Diru birtualarekin egindako eragiketen gaineko aitortzen informatiboa") onesten baitira (NAO, 146. zk., 23-07-23).
- [2/2023 Legegintzako Foru Dekretua](#), maiatzaren 24koa, zeinaren bidez onesten baita fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga-araubide

bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien testu bategina (NAO, 124. zk., 23-06-13).

- [31/2023 Foru Agindua](#), apirilaren 25ekoa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena, alkoholaren eta edari eratorrien gaineko edo hidrokarburoen gaineko zergen eremu objektiboetako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituztenen erregistroa sortzen duena (NAO, 93. zk., 23-05-04).

- [14/2023 Foru Legea](#), apirilaren 5ekoa, Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziari buruzkoa (NAO, 83. zk., 23-04-24).

- [23/2023 Foru Agindua](#), martxoaren 23koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, 2022ko zergaldiari dagozkion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren autolikidazio ereduak onesten dituen, horiek aurkezteko eta diru-sarrera egiteko arauak ematen dituen eta bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko prozedura eta baldintzak ezartzen dituen (NAO, 67. zk., 23-04-04).

- [19/2023 Foru Agindua](#), martxoaren 16koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baita 366 eredu, "Hondakinak hondakindegietan uztearen eta hondakinen errausketaren eta koerrausketaren gaineko zerga. Autolikidazioa" izenekoa, eta arautzen baita zergaren lurralde-erregistroan inskribatzea (NAO, 65. zk., 23-03-31).

- [13/2023 Foru Agindua](#), otsailaren 28koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez garatzen baita lekualdatutako langileentzako araubide berezia eta onesten baitira 149 eta 150 ereduak, hurrenez hurren: "Lekualdatutako langileentzako araubide berezirako aukera, uko egitea, baztertzea eta aplikazio epearen bukaera komunikatzea" eta "Lekualdatutako langileentzako araubide bereziari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa" (NAO, 55. zk., 23-03-17).

- [1/2023 Legegintzako Foru Dekretua](#), urtarrilaren 25ekoa, tributu harmonizazioari buruzkoa. Legegintzako foru dekretu horren bidez aldatzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea eta Finantza-transakzioen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/2022 Foru Legea, eta luzatzen dira balio erantsiaren gaineko zergari eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri (NAO, 26. zk., 23-02-07).

5. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA.

5.1. ONETSI DIREN PLANAREN BARRUKO ARAUAK:

Honako hauek:

	MAILA ETA EDUKIA	OHARRAK
FD	zeinaren bidez aldatzen baita 37/2014 Foru Dekretua, apirilaren 30ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornikuntza arautzen duena.	Onespena: 39/2023 Foru Dekretua , apirilaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitateaz kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuak betetzea arautzen duena-NAO, 94. zk., 2023-05-05.
FD	Nafarroako hezkuntza sisteman hizkuntzak ikasteko programak arautzekoa.	Onespena: 43/2023 Foru Dekretua , apirilaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programen oinarrizko alderdiak arautzen dituen-NAO, 100. zk., 2023-05-12.
FD	Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioen funtzionamenduak sortzen dituen diru-sarrera eta gastuen araubidea ezartzen duena.	Onespena: 153/2023 Foru Dekretua , irailaren 6koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoen kudeaketa ekonomikoa arautzen duena-NAO, 194. zk., 2023-09-15.
FD	hezkuntza sistemako irakasleak izendatzeko prozedura arautzen duena, Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen sarean enplegurako lanbide prestakuntza egiaztagarria emateko, bai eta prestakuntza	Onespena: 36/2023 Foru Dekretua , apirilaren 5koa, hezkuntza sistemako irakasleak izendatzeko prozedura arautzen duena, Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen sarean enplegurako lanbide-prestakuntza egiaztagarria emateko, bai eta prestakuntza hori emateagatik jasoko

	hori emateagatik jasoko dituzten konpentsazio ekonomikoak ere.	dituzten konpentsazio ekonomikoak ere-NAO, 89. zk., 2023-04-28.
--	--	---

5.2. PLANEKO GAINERAKO ARAUAK EZ ONESTEKO ARRAZOTIAK.

Hona Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi dituen arrazoiak:

	MAILA ETA EDUKIA	OHARRAK
FD	Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko ikastetxe publikoen antolaketa arautzen duena.	LOMLOE ezartzeko prozesua 2023-2024 ikasturtean amaituko da eraginkortasunez, eta Hezkuntza Departamentuak uste du egokiagoa dela dekretu hauen aurretik egin behar diren beste arau batzuk prestatzeko eta implementatzeko lanen hurrenkera eta lehentasunak ezartzen joatea.
FD	Nafarroako Foru Komunitatean irakasleen lanaldia eta ordutegia arautzekoa.	Oraingo ikasturtea irakaskuntzetako curriculumak erabat inplementatzen diren lehenbizikoa izanik, inguruabar horren ondoriozko hausnarketan oinarrituta ekin nahi zaio dekretu hauek prestatzeari.
FD	Nafarroako Foru Komunitatean Lanbide Heziketako ikastetxe integratuen erregelamendu organikoa ezartzen duena.	Izapideen hasiera atzeratu da, honako bi xedapen hauek onetsi ondoren: 3/2022 Lege Organikoa, martxoaren 31koa, Lanbide Heziketa antolatu eta integratzekoa; 659/2023 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, Lanbide Heziketaren Sistemaren antolamendua garatzen duena.

5.3. PLANETIK KANPO ONETSITAKO ARAUAK.

2023an Planetik kanpoko arau hauek onetsi dira:

- [1/2023 Foru Dekretua](#), urtarrilaren 18koa, Hezkuntza Departamentuaren mendeko Nafarroako Hezkuntza Ekitaterako Baliabide Zentroaren (NHEBZ) sorrera, antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituena.
- [26/2023 Foru Dekretua](#), martxoaren 15ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean makinen elektromekanikako teknikariaren tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena.
- [27/2023 Foru Dekretua](#), martxoaren 15ekoa, araubide bereziko kirol ikasketen barrenean eskubaloiko kirol teknikariaren tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena Nafarroako Foru Komunitatean.
- [28/2023 Foru Dekretua](#), martxoaren 15ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean 3D Animazioetako, Jokoetako eta Ingurune Interaktiboetako goi mailako teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena.
- [29/2023 Foru Dekretua](#), martxoaren 15ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean Mahastizaintza eta Ardogintzako goi mailako teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena.
- [245/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena.
- [106/2023 Foru Agindua](#), azaroaren 9koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, zeinaren bidez eskolaldi motak arautzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko lurralde-eremuan Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikasketak ematen dituzten ikastetxeetarako.
- [103/2023 Foru Agindua](#), azaroaren 2koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum aniztasuneko programak arautzen dituena.
- [59/2023 Foru Agindua](#), ekainaren 30ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzan ari diren ikasleen ebaluazioa arautzen duena.
- [53/2023 Foru Agindua](#), ekainaren 12koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era arautzen duena.
- [52/2023 Foru Agindua](#), ekainaren 12koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatu eta mailaz igotzeko era arautzen duena.

- [45/2023 Foru Agindua](#), maiatzaren 10ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era arautzen duena.
- [15/2023 Foru Agindua](#), martxoaren 8koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Komunitateko lurralde eremuan helduentzako Batxilergoko irakaskuntzen ordenamendua, antolaketa, ezarpena eta ordutegia arautzen dituen araubide presentzialean eta urrutiko araubidean.

6. OSASUN DEPARTAMENTUA.

6.1. ONETSI DIREN PLANAREN BARRUKO ARAUAK:

Gobernuaren 2022ko abenduaren 28ko Erabakiak 2023ko Araugintza Plana onetsi zuen. Hari jarraikiz, Osasun Departamentuak ez zeukan asmorik araurik onesteko:

6.2. PLANEKO GAINERAKO ARAUAK EZ ONESTEKO ARRAZOIAK.

Ez dago ezer esateko, adierazi berri den arrazoiarengatik.

6.3. PLANETIK KANPO ONETSITAKO ARAUAK.

Osasun Departamentuak honako arau hauek onetsi ditu:

- [12/2023 Foru Dekretua](#), otsailaren 22koa, zeinaren bidez arautzen baita farmazia-zerbitzuen eta medikamentu-gordailuen farmazia-arreta Nafarroako Foru Komunitateko zentro soziosanitarioetan.
- [33/2023 Foru Dekretua](#), martxoaren 29koa, zeinaren bidez prestazio ortoprotesikoa (kanpoko ortoprotesien modalitatea) arautzen baita, eta sortzen baita Nafarroan prestazio ortoprotesikoa kudeatzen laguntzen duten establezimenduen erregistroa.
- [144E/2023 Foru Agindua](#), maiatzaren 8koa, Osasuneko kontseilariak emana, Osasuneko kontseilariak maiatzaren 10ean emandako 44/2016 Foru Agindua

aldatzen duena. Foru agindu horren bidez Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren egitura organikoa ezarri zen.

- [163E/2023 Foru Agindua](#), maiatzaren 18koa, Osasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez aldatzen baita Osasuneko Kontseilariak ekainaren 22an emandako 498E/2017 Foru Agindua, finantzaketa publikoa duten eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agintzen dituzten tratamendu medikoei atxikitzea errazteko laguntzak arautzen dituena.

- [200E/2023 Foru Agindua](#), ekainaren 9koa, Osasuneko kontseilariak emana, Osasuneko kontseilariaren irailaren 18ko 71/2012 Foru Agindua aldatzen duena. Foru agindu horren bidez farmazia-bulegoen marjinen indize zuzentzailea aplikatzeko prozedura ezarri zen.

- [391E/2023 Foru Agindua](#), azaroaren 27koa, Osasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez arautzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun laguntzako zerbitzuburu eta atalburuen lanpostuak betetzeko prozedura.

- [246/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, Osasun Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena.

- [247/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, zeinaren bidez aldatzen baitira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren estatutuak, irailaren 3ko 171/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsiak.

- [248/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituena.

7. LURRALDE KOHESIORAKO DEPARTAMENTUA.

7.1. ONETSI DIREN PLANAREN BARRUKO ARAUAK:

Ez da onetsi Planeko araurik batere. Hala ere, 2024an, egungo inguruabarrak iragandakoan, 2024ko Araugintza Planean ezarritako foru dekretuen proiektuak amaitzeko asmoa dago.

7.2. PLANEKO GAINERAKO ARAUAK EZ ONESTEKO ARRAZOIAK.

Hona Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi dituen arrazoiak:

MAILA ETA EDUKIA		OHARRAK
FD	Nafarroako toki erakundeetan barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena.	2023ko ekitaldian aipatutako proiektuen eduki teknikoak landu dira, baina ez dira bildu izapideei ekiteko behar diren agiri guztiak, batez ere aldaketak izan direlako Kudeaketa eta Lankidetzaren Ekonomikorako Zerbitzuko langileen artean. lanetan ari ziren bost teknikariren kontratuak ekitaldi erdian amaitu ziren eta haien ordezkioak prestakuntzan eta egokitzapenean ari dira orain.
FD	Nafarroako toki entitateek ematen dituzten zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko irizpideak arautzen dituena.	Beste alde batetik, Nafarroako toki erakundeetan barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen foru dekretuaren proiektuaren ardura daukan ataleko buru aldatu da eta ondorioz dekretuaren onespena atzeratu da.
FD	zeinaren bidez aldatzen baita 84/1990 FORU DEKRETUA, apirilaren 5ekoa, Nafarroan industrialdeak eta industria jarduerak ezartzeko arauak onesten dituena.	Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren araugintza planean zegoen. Zuzendaritza nagusi berriak erabaki du proposamena berriz aztertzea izapideekin aurrera egin baino lehen.

7.3. PLANETIK KANPO ONETSITAKO ARAUAK.

Honako hau besterik ez:

- [249/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena-NAO, 244. zk., 2023-11-23.

8. INDUSTRIAKO ETA ENPRESEN TRANTSIZIO EKOLOGIKO ETA DIGITALERAKO DEPARTAMENTUA

8.1. ONETSI DIREN PLANAREN BARRUKO ARAUAK:

2023an ez da onetsi urte horretako araugintza planean ezarritako arauetako bat ere.

8.2. PLANEKO GAINERAKO ARAUAK EZ ONESTEKO ARRAZOIAK.

Hona Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi dituen arrazoiak:

	MAILA ETA EDUKIA	OHARRAK
FD	zeinaren bidez garatzen baita 18/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, enpresen sustraitzearen aldeko eta deslokalizazioaren aurkako neurriei buruzkoa.	Nafarroako Kontseiluaren irizpenaren zain dago. 2024ko Araugintza Planean sartu da.
FD	zeinaren bidez arautzen baita nola ezarri behar diren instalazio eolikoak eta fotovoltaikoak, Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 31.1 eta 33.1 artikulua garatzeko.	Konplexutasun teknikoa dela eta, araua prestatzeko lanak atzeratu dira. 2024ko Araugintza Planean sartu da.

8.3. PLANETIK KANPO ONETSITAKO ARAUAK.

2023an Planetik kanpoko arau hauek onetsi dira:

- [15/2023 Foru Agindua](#), maiatzaren 15ekoa, aldatzen duena Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren azaroaren 18ko 244DEP/2011 Foru Agindua, zeinaren bidez hauteskundeetako arbitraje

prozeduretan parte hartzen duten arbitroen dietak onesten baitira (NAO, 121. zk., 2023ko ekainaren 8koa).

- [250/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena (NAO, 244. zk., 2023ko azaroaren 23koa).

9. ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA ENPLEGUKO DEPARTAMENTUA

9.1. ONETSI DIREN PLANAREN BARRUKO ARAUAK:

Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi duenez, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak Planean ezarritakoa bete du, 2023an bertan ezarritako arau bakarra onetsi baita:

	MAILA ETA EDUKIA	OHARRAK
FD	honako hauek aldatzen dituena: 92/2020 Foru Dekretua, abenduaren 2koa, arautzen dituena, batetik, Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen sistemaren barruan, egoitza zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu anbulatorioen funtzionamendua adinekoen, desgaitasuna dutenen, eritasun mentala dutenen eta gizarte inklusioaren arloetan, eta bestetik, baimenen, aurretiazko komunikazioen eta	Onespena: 38/2023 Foru Dekretua , apirilaren 5ekoa, honako hauek aldatzen dituena: 92/2020 Foru Dekretua, abenduaren 2koa, arautzen dituena, batetik, Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen sistemaren barruan, egoitza zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu anbulatorioen funtzionamendua adinekoen, desgaitasuna dutenen, eritasun mentala dutenen eta gizarte inklusioaren arloetan, eta bestetik, baimenen, aurretiazko komunikazioen eta homologazioen araubidea; eta 69/2008 Foru Dekretua, ekainaren 17koa, gizarte zerbitzu orokorren zorroa onesten duena eta, horrekin

	<p>homologazioen araubidea; eta 69/2008 Foru Dekretua, ekainaren 17koa, gizarte zerbitzu orokorren zorroa onesten duena eta, horrekin batera, gizarte eta osasun arloko arreta integralerako zerbitzu soziosanitarioak eta migrazio politiken zerbitzuen zorroa onartzen dituena.</p>	<p>batera, gizarte eta osasun arloko arreta integralerako zerbitzu soziosanitarioak eta migrazio politiken zerbitzuen zorroa onartzen dituena-NAO, 94. zk., 2023-05-05.</p>
--	---	---

9.2. PLANEKO GAINERAKO ARAUAK EZ ONESTEKO ARRAZOIAK.

Plana guztiz bete da; beraz, ez dago honetaz ezer esateko.

9.3. PLANETIK KANPO ONETSITAKO ARAUAK.

Adierazi denaren arabera, 2023an Planetik kanpo honako arau hau baino ez zen onetsi:

- [251/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena (NAO, 244. zk., 2023-11-23).

10. UNIBERTSITATEKO, BERRIKUNTZAKO ETA ERALDAKETA DIGITALEKO DEPARTAMENTUA

10.1. ONETSI DIREN PLANAREN BARRUKO ARAUAK:

Adierazi denaren arabera, Planean ezarritako arau bakarra ez da onetsi.

10.2. PLANEKO GAINERAKO ARAUAK EZ ONESTEKO ARRAZOIAK.

Honako hauek dira:

MAILA ETA EDUKIA		OHARRAK
FD	Nafarroako Foru Komunitateko gaitasun digitalen ziurtagiria arautzen duena.	<p>Aurreko kontsulta amaitu denetik gaur arte foru dekretuaren proiektuaren testua landu da. Departamentuaren asmoa da 2024. urtean izapideekin aurrera harik eta Nafarroako Gobernuari helarazi arte, onets dezan.</p> <p>Horren ildotik, laster jendaurreko informazioaren iragarkia plazaratuko da eta foru dekretuaren proiektuaren testua gobernu irekiaren atarian paratuko da, eta pertsona eta erakunde interesdunek aldi batez parte hartzen ahalko dute beren iradokizun, ekarpen eta alegazioekin.</p> <p>Proiektua 2024ko Araugintza Planean sartu da berriro.</p>

10.3. PLANETIK KANPO ONETSITAKO ARAUAK.

Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiaren arabera Planetik kanpo honako hau baino ez da onetsi:

- [252/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena-NAO, 244. zk. - 2023-11-23.

11. BARNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA JUSTIZIAKO DEPARTAMENTUA

11.1. ONETSI DIREN PLANAREN BARRUKO ARAUAK:

2023an Araugintza Planeko arau hauek onetsi dira:

MAILA ETA EDUKIA		OHARRAK
FD	zeinaren bidez aldatzen baita otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duena.	Ez zen izapidetu, ez baitzen beharrezkoa langileen estatutua aldatzen duen foru legearen proposamena onetsi ondoren: 12/2023 Foru Legea , martxoaren 29koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina aldatzen duena (testu hori abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak onetsi zuen)-NAO, 78. zk., 2023-04-18.
FD	Nafarroako Foruzaingoaren lanaldi eta ordainsarien erregelamendua onesten duena.	Onespena: 4/2023 Foru Dekretua , urtarrilaren 25ekoa, Nafarroako Foruzaingoko kideek zerbitzua emateko jantziak erosteagatik kalte-ordaina jasotzeko baldintzak arautzen dituen-NAO, 31. zk., 2023-02-14.
FD	zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 17ko 25/2013 Foru Dekretua, Nafarroako Foruzaingoko kideek zerbitzuaren arrazoiak direla-eta arropa erabili eta erosteagatik kalte-ordaina jasotzeko baldintzak eta beste neurri batzuk arautzen dituen.	Onespena: 227/2023 Foru Dekretua , urriaren 25ekoa, Nafarroako Foruzaingoaren lanaldi, ordutegi eta ordainsarien erregelamendua onesten duena-NAO, 240. zk., 2023-11-20. Apirilaren 17ko 25/2013 Foru Dekretua indargabetu du.

11.2. PLANEKO GAINERAKO ARAUAK EZ ONESTEKO ARRAZOIAK.

Hona Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi dituen arrazoiak:

MAILA ETA EDUKIA	OHARRAK
------------------	---------

FD	Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan sartu eta bertako lanpostuak betetzeko deialdietako merezimenduen balorazioa arautzen duena.	Oraintsu, otsailaren 21ean, Nafarroako Kontseiluak 4/2024 irizpena eman du.
FD	langileen arloko erregelamendu-arau batzuk aldatzen dituena.	Ez zen negoziatu, hurrengo batean aztertzeko utzi baitzen.
FD	Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan zerbitzuak telelan bidez ematea arautzen duena.	Izapideak ez ziren amaitu, ez baitzen kontuan hartu Nafarroako Kontseiluaren irizpenaren ondorioetarako.
FD	zeinaren bidez aldatzen baita maiatzaren 30eko 43/2018 Foru Dekretua, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko suhiltzaile edo suhiltzaile kabo lanpostuak betetzen dituzten langileendako bigarren jarduerako egoera arautzen duena.	Barne Zuzendaritza Nagusiak azaldu duenez, arau guztien izapideak hasi dira; nolahi ere, ezin izan dira bete 2023ko Araugintza Planean ezarritako aurreikuspenak honako arrazoi hauengatik: batetik, Planean arau asko sartu ziren; bestetik, Barne Zuzendaritza Nagusiak lehentasuna eman zien Nafarroako Foruzaingoaren lanaldien, ordutegien eta ordainsarien erregelamendua onesten duen foru dekretua prestatzeko eta onesteko lanei, bai eta motordun ibilgailuen trafikoaren eta zirkulazioaren arloko eginkizunak eta zerbitzuak Estatuko Administrazioetik Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatzen dituen apirilaren 4ko 252/2023 Errege Dekretuaren ⁹ onspenaren ondorioz motordun ibilgailuen trafikoaren eta zirkulazioaren arloko eskumenak transferitzeko lanei ere. Beste alde batetik,
FD	zeinaren bidez aldatzen baita martxoaren 6ko 18/2019 Foru Dekretua, 112 SOS Nafarroa Larrialdiak Kudeatzeko Zentroa arautzen duena.	
FD	zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren antolamendua,	

⁹ Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren 4. Atalak deuseztatu zuen otsailaren 15eko 258/2024 epaiaren bidez (horren bidez 535/2023 errekurso arrunta baietsi zen).

	funtzionamendua eta barne araubidea.	hauteskondeek eta botere-eskualdatzearen inguruko lanek ere eragina izan zuten araugintzan.
FD	zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako poliziek bideokamerak erabiltzeko baldintzak, grabazioen zaintza eta grabazioak eskuratzeko bidea.	
FD	zeinaren bidez aldatzen baita martxoaren 25eko 57/2002 Foru Dekretua, Nafarroako Foruzaingoko lanpostuak betetzeko erregelamendua onesten duena.	
FD	Nafarroako Joko eta Apustuen Erregelamendu Orokorra onesten duena.	

11.3. PLANETIK KANPO ONETSITAKO ARAUAK.

Araugintza Planetik kanpoko arau hauek onetsi dira:

- [4/2023 Foru legea](#), martxoaren 9koa, justizia errestauratiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestauratibo komunitarioei buruzkoa (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 57. zk., 2023ko martxoaren 21a).
- [254/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 253. zk., 2023ko azaroaren 23koa).

12. LANDA GARAPENeko ETA INGURUMENeko DEPARTAMENTUA.

12.1. ONETSI DIREN PLANAREN BARRUKO ARAUAK:

Idazkaritza Tekniko Nagusiak jakinarazi duenez, 2023ko Araugintza Planak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren ekintza hau aurreikusten zuen:

MAILA ETA EDUKIA		OHARRAK
FD	zeinaren bidez Babes Bereziko Basa Florako Espezieen Nafarroako Zerrenda ezartzen baita eta Nafarroako Florako Espezie Mehatxatuen Katalogo berria ezartzen baita.	Onespena: 270/2023 Foru Dekretua , azaroaren 22koa, zeinaren bidez onesten baitira “Orbaibarko mendiak” kontserbazio bereziko eremua eta “Orbaibarko mendiak” paisaia babestua (PP-1) kudeatzeko plana eta “Olleta mendia” (RN-21) eta “Conde mendia” (RN-22) natura-erreserbak erabili eta kudeatzeko plan zuzentzailea- NAO, 8.zk., 2024-01-11.
FD	“Orbaibarreko mendiak” kontserbazio bereziko eremua kudeatzeko plan berria onesten duena.	Onespena: 10/2023 Foru Dekretua , otsailaren 15ekoa, Babes Bereziko Basa Florako Espezieen Nafarroako Zerrenda sortu eta Flora Espezie Mehatxatuen Nafarroako Katalogoa ezartzen duena-NAO, 41. zk., 2023-02-27.

12.2. PLANEKO GAINERAKO ARAUAK EZ ONESTEKO ARRAZOIAK.

Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi duenaren arabera:

MAILA ETA EDUKIA		OHARRAK
FD	zeinaren bidez Babes Bereziko Basa Faunako Espezieen Nafarroako Zerrenda ezartzen baita eta Nafarroako Faunako Espezie Mehatxatuen Katalogo berria ezartzen baita.	Ez da zehaztu ez onesteko arrazoirik.

FD	ekitaldi publiko jasangarriei buruzkoa.	Ez da zehaztu ez onesteko arrazoirik. Dena den, izapidea aurreratuta daude, eta dagoeneko aldeko irizpena eman du Nafarroako Kontseiluak: 5/2024, otsailaren 21ekoa.
FD	“Alduide mendia” kontserbazio bereziko eremua kudeatzeko plan berria onesten duena.	Kontserbazio bereziko eremuei buruzko lau arauak ez onesteko arrazoa giza baliabideen urritasuna da.
FD	“Uitzamako eta Basaburuko hariztiak” kontserbazio bereziko eremua kudeatzeko plan berria onesten duena.	
FD	“Peñadil, Montecillo eta Monterrey” kontserbazio bereziko eremua kudeatzeko plan berria onesten duena.	
FD	“Urbasa eta Andia” kontserbazio bereziko eremua kudeatzeko plan berria onesten duena.	
FD	Onura Publikoko Mendien Katalogoa onesten duena.	Ez da zehaztu ez onesteko arrazoirik.
FD	Nafarroako Hezeguneen Inbentarioa eguneratzen duena.	Ez da zehaztu ez onesteko arrazoirik.

12.3. PLANETIK KANPO ONETSITAKO ARAUAK.

Honako hauek dira:

- [21/2023 Foru Legea](#), abenduaren 26koa, Nafarroako arrantzaren kudeaketari buruzkoa.

- [9/2023 Foru Legea](#), martxoaren 22koa, Nafarroako Ingurumen arloko Kontseiluari buruzkoa.
- [5/2023 Foru Legea](#), martxoaren 9koa, nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrei buruzkoa.
- [255/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena.
- [61/2023 Foru Dekretua](#), abuztuaren 2koa, Nafarroako Hondakin Planaren Jarraipen Batzordearen antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituena.
- [49/2023 Foru Dekretua](#), maiatzaren 24koa, zeinaren bidez arautzen baita Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren gobernantza sistema, haren antolakuntza eta funtzionamendua.
- [13/2023 Foru Dekretua](#), otsailaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean nekazaritzako ekoizpen ekologikoa eta nekazaritzako produktuetan eta elikagaietan ekoizpen hori adieraztea arautzen duena.
- [46/2023 Foru Agindua](#), azaroaren 21ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baitira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren konturako laguntzen tratamenduan 2024-2027 aldian parte hartuko duten entitate laguntzaileak deitzeko eta hautatzeko arauak.
- [16/2023 Foru Agindua](#), irailaren 21ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, zenbait muga ezartzen dituena prosulfocarb materia aktiboa duten produktu fitosanitarioen erabilerari dagokionez, zerealen 2023-2023ko kanpainak iraun bitartean.
- [186E/2023 Foru Agindua](#), uztailaren 14koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, 2023-2024 denboraldirako ehiza debekualdiei buruzko xedapen orokorra onesten duena.
- [70/2023 Foru Agindua](#), ekainaren 20koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, zeinaren bidez arautzen baita Nekazaritzako Lurzatiien Informazio Geografikorako Sistema (SIGPAC) eta sistema hori Nafarroan kudeatzeko arauak ezartzen baitira.

13. KULTURA, KIROL ETA TURISMO DEPARTAMENTUA.

13.1. ONETSI DIREN PLANAREN BARRUKO ARAUAK:

Ez da onetsi Planean ezarritako araurik bat ere.

13.2. PLANEKO GAINERAKO ARAUAK EZ ONESTEKO ARRAZOIAK.

Hona Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi dituen arrazoiak:

MAILA ETA EDUKIA		OHARRAK
FD	Nafarroako Kirolaren Erregistroari buruzkoa.	2023an jendaurreko informazioaren izapidea eta departamentu guztiei kontsultatzeko izapidea egin dira. Arauaren izapideak atzeratu dira, oraindik ezin izan baita sortu Nafarroako Kirolaren Erregistroa kudeatuko duen aplikazio informatikoa. Gainera, departamentuek aurkeztu dituzten alegazioen aztertu ondoren arauko zenbait apartatu aldatu behar izan dira. Orain manuzko memoriak eta txostenak egiten ari dira, eta aurreikusten da 2024an zehar aplikazio informatikoa prest egotea eta araua behin betiko onestea.
FD	kirolaren arloko lanbideetan aritzeko aldi baterako gaikuntzen araubideari buruzkoa.	2023an jendaurreko informazioaren izapidea eta departamentu guztiei kontsultatzeko izapidea egin dira. Gainera, arauaren izapideak atzeratu dira, zeren eta herritarrek departamentuek aurkeztu dituzten alegazioen aztertu ondoren arauko zenbait apartatu aldatu behar izan baitira. Halaber, araua ezin osatu izan da 2023an, teknikoki eta juridikoki konplexua baita. Orain manuzko memoriak eta txostenak egiten ari dira, eta aurreikusten da 2024an zehar behin betiko onestea.

FD	bitartekotza turistikoa arautzen duena. ¹⁰	Arau hau prestatzeko izapideak ezin izan dira bukatu 2023an, Turismo Zuzendaritza Nagusiak lan-zama handia eduki duelako Next Generation EU funtsak kudeatzen. Izapideak 2024rako utzi dira.
FD	turismo ibiltaria arautzen duena.	2023an ezin izan dira bukatu Nafarroako Foru Komunitateko bitartekotza turistikoa arautzen duen foru dekretuaren proiektua, Turismo Zuzendaritza Nagusiak lan-zama handia eduki duelako Next Generation EU funtsak kudeatzen. Izapideak 2024rako utzi dira.
FA	Nafarroako kirol federazioen hauteskundeak arautzen dituena.	<p>Arauen izapideak atzeratu ziren Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren zuzendaritza talde berriko kideak lanean hasi arte. Horregatik, hasieran aintzat hartu ez ziren gauza batzuk aztertu dira (esaterako, kirol-federazioetako organoetan parekotasuna sustatzeko neurriak) eta ondorioz testuko atal batzuk berrikusi dira.</p> <p>Aldaketa horien eraginez araua ezin onetsi izan da 2023an. Nolanahi ere, 2024ko urtarrilaren foru aginduaren proiektuaren jendaurreko informazioaren izapidea egin zen. Orain, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua alegazioak aztertzen ari da. Testuan txertatzen direnez erabaki ondoren manuzko memoriak eta txostenak eginen dira. Uste da arau hau 2024ko lehen sei hilekoan zehar onetsiko dela behin betiko.</p>

¹⁰ Arau honi eta taulako hurrengoei dagokienez, kontuan eduki behar da 2023an (2023-2027 legegintzaldiaren hasieran) turismoaren arloko eskumena orduko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak zeukala.

13.3. PLANETIK KANPO ONETSITAKO ARAUAK.

Planetik kanpoko bi arau baizik ez dira onetsi:

- [256/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena-NAO, 244. zk., 2023-11-23.
- [257/2023 Foru Dekretua](#), azaroaren 15ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren estatutuak onesten dituena-NAO, 244. zk., 2023-11-23.


III. ONDORIOAK

Bildutako datuak aztertu dira eta 2023ko Araugintza Planaren edukiarekin alderatu dira. Horretan oinarrituta, honako ondorio hauek atera daitezke:


1. Lehenbizikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren 2023ko Araugintza Planaren edukiari zorrotz helduta, txosten honetako ondorioa nahitaez izan behar da haren **% 28,13** bete dela. Beraz, kopuruak bereiz hartuta, Planaren betetze-maila urritzat jo behar da eta ezegokitzat ebaluatu, adierazleen eskala honen arabera:


ADIERAZLEEN TAULA		
BETETZE-EHUNEKOA	KALIFIKAZIOA	EBALUAZIOA
%0 eta %19 artean	OSO URRIA	EZ KONFORME
%20 eta %49 artean	URRIA	
%50 eta %66 artean	NAHIKOA	ONARGARRIA
%67 eta %84 artean	NEURRIZKOA	
%85 eta %99 artean	ZUZENA	EGOKIA
100% edo gehiago	BIDEZKOA	




Aurreko urteetan betetze-ehunekoetan izan den hoberako joera nolabait aldatu dela antzematen da: 2020ko Araugintza Planaren %16,84 bete zen, 2022koaren %33,64 eta 2021ekoaren %29,00. Kontuan hartu behar da beherakada ez dela ehunekoetan soilik gertatu: 2023ko aurreikuspeneko arauen kopurua (64) 2022koa baino baxuagoa zen (110). Bi parametro horiek batera ikus daitezke barra-grafiko honetan:



Betetze-ehunekoaren gorako joeran izan den beherakadaxoa lineal honetan islatzen da:



guztirako datuak tamaina erlatiboen arabera azalera-grafikoan islatzen dira:




Beste alde batetik, aurreko legegintzako ekitaldietako ebaluazioan bezala, berriro ere agerikoa da Planaren betetze-maila asko aldatzen dela departamentu batetik bestera. Hurrengo taulan 2023ko emaitzak xehatuta agertzen dira: Esan den bezala, emaitzak egungo departamentu-egituraren arabera antolatu dira.

DEPARTAMENTUAK	2023ko Araugintza Planeko arauetatik onetsi direnak	2023ko planean aurreikusitako arauak	Betetze ehunekoa
Lehendakaritza eta Berdintasuna	2	11	18,18
Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskara	0	0	EZ DAGOKIO
Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politika	3	6	50,00
Ekonomia eta Ogasuna	3	6	50,00
Hezkuntza	4	7	57,14
Osasuna	0	0	EZ DAGOKIO
Lurralde Kohesioa	0	3	0,00
Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitala	0	2	0,00
Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegua	1	1	100,00
Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitala	0	1	0,00
Barneko, Funtzio Publikoko eta Justizia	3	12	25,00
Landa Garapena eta Ingurumena	2	10	20,00
Kultura, Kirol eta Turismoa	0	5	0,00
TOTALES	18	64	28,13

Taulako datuak azalera-grafiko batera pasatuta, hau ateratzen da:

2023ko Araugintza Planaren betetze-ehunekoa, Departamentuka xehatuta




Jada aipatu denez, itxuraz dauden aldeak askotariko arrazoiei zor zaizkie, departamentuek banan jakinarazi duten bezala. Kontuan hartzen badira 2023ko Araugintza Planean jasota ez zeuden legegintzako egintzen datuak, emaitzak oso bestelakoak dira, ondoko taulak erausten duen bezala:

DEPARTAMENTUAK	2023ko UAP arauetatik onetsi direnak	2023ko UAPean aurreikusitako arauak	2023ko UAP kanpoko onetsi diren arauak	Betetze ehunekoa
Lehendakaritza eta Berdintasuna	2	11	3	45,45
Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskara	0	0	3	∞
Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politika	3	6	5	133,33
Ekonomia eta Ogasuna	3	6	19	366,67
Hezkuntza	4	7	13	242,86
Osasuna	0	0	9	∞
Lurralde Kohesioa	0	3	1	33,33
Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitala	0	2	2	100,00
Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegua	1	1	1	200,00
Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitala	0	1	1	100,00
Barneko, Funtzio Publikoko eta Justizia	3	12	2	41,67
Landa Garapena eta Ingurumena	2	10	11	130,00
Kultura, Kirol eta Turismoa	0	5	2	40,00
GUZTIRA	18	64	72	140,63


Hortaz, aurreko taulak hobeki islatzen du 2023ko legegintzako ekoizpena, departamentuka xehatuta.

2023an onetsi ez ziren Planeko 46 araei dagokienez, idazkaritza tekniko nagusiek emandako datuetatik ondorioztatzen da haien ehuneko oso txikia dela (% 28,26) egiteko izapiderean edo lanen bat egin gabe dutenak, eta gehienek (gainerako % 71,74k) izapidetze egoeran dutela prozedura, edo aurreikusi ezinezko arrazoiren batengatik geldiarazita, etenda nahiz deuseztatuta. Hala ateratako datuek grafiko hau osatzen dute:




Bigarrena.

Aurrean esan den bezala, edozein ebaluazio lanek berezkoak dituen helburuak kontuan izanda, Planaren barruan ez egon arren onetsi diren arauak legegintzan izan duten pisua haztatu behar da. Ondoko irudian alderatuta ageri dira arau horiek eta 2023ko Araugintza Planaren barruan onetsitakoak:



Planetik kanpo onetsitakoak haren barruan onetsitakoak halako lau gehiago dira. Urteak urtera alderatuta:



, aldaketak legegintza aurrez ezin aurreikusi izatearen ondoriozkoak dira; izan ere, batera gertatzen ahal dira:

- maiz gertatzen den zerbait gertatu ahala onesten diren arauak, hau da, gutxi gorabehera beti onesten direnak.
- ezohiko inguruabarrak gertatzen direnean onesten direnak (COVIDaren krisiaren edo Ukrainako gatazkaren ondoriozkoak).
- aurreikusteko modukoak izanik ere, Planean ezartzen ez direnak; kasu honetan, legegintzaldi-aldaketak eragindako arau-aldaketen ondoriozkoak.

Planetik kanpoko arauen eta Planean ezarritako arauen arteko alderantzizko erlazioa dela eta, zenbat eta gehiago izan haiek gutxiago dira hauek eta handiagoa da batzuen eta besteen arteko proportzio-arrazoia. Dirudienez, erabili diren lau urteetako datuek erakusten dutenaren arabera, bi taldeetako arauak batuz gero, proportzioa gehitzen da: 2020an x5,19 (pandemiaren urtea: berrogeialdia eta administrazio-jarduketak etenda), 2021ean x3 (pandemiaren ondorioei aurre egiteko neurriak), 2022an x1,68 baino ez (Ukraina) eta 2023an x4 (gobernu berria).

2. Hirugarrena.

Planaren betetze-maila urria izanagatik, lehen ondorioan azaltzen den bezala, hala ere horrek ez digu besterik gabe pentsarazi behar Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak 2023. urtean gaizki erabili duenik bere legegintzako ahalmena. Aitzitik, bigarren ondorioan azaltzen den egoera dela-eta, ezinbestekoa da biak batera aztertzea. Hain zuzen ere, Planetik kanpo zenbat arau onetsi diren kontuan edukita (aurreikusita egon arren, ez ziren Planean sartu), Planaren betetze-ehuneko konpentsatu ez ezik gainditu ere egin da eta %140,63ra iritsi da. Horrenbestez, hori guztia gogoan hartuta, honako hau da hirugarren ondorioa: %28,13ko betetze-maila, %20-49 bitarte horretan egon arren eta, beraz, urria izan arren, bidezkoa eta egokia da, gorago azaldutako adierazleen taularen arabera.

Iruña, 2024ko martxoaren 13a, Gobernuaren Idazkaritzako, Erakundeekiko Harremanetako eta Araugintzako Zerbitzua.

*Koordinazio eta Araugintza Ataleko
burua*

*Gobernuaren Idazkaritzako,
Erakundeekiko Harremanetako eta
Araugintzako Zerbitzuaren zuzendaria*

SINADURAK JATORRIZKO DOKUMENTUAN DAUDE

Roberto García Larrea

María Belén López Carballo